


ANAITASUNA

B I Z K A I A

158gn. zenb. - 1968ko aprillak 15 - 4 pta.

SEKULAKO IZKETALDIA

M I R A R I B A T H A B A N A N ?



Gutariko askoren ustez, Cubako buruzagi bizardoa izan da oraiñarte, Mundu Barriko, batez bere Latiniamerikako gizonik galgarriena. Fidel Castro, komunista, uniforme berdeko morroia, Amerikanoen kontra amaibako berbaldiak egiten ditua-na, Eleizea errotik atara gura leukena.

Aspaldion, gitxi jardun da Fidel Castro dala ta ezjala. Cubaren izena, bein edo beintxotan agertzen izan da egunkarieta-

ko lenengo Ierrootan. Baiña ixillaldi au, usterik gitxienean amaitu da.

Arestian, Vatikanoko diplomatiku batek, obispo batek, Cubako Nuntzio jaunak, izketaldi bat eskiñi deutso periodiku ajentzia aundi bateri; eta alkarrizketa orretan, zeruetaraiño goratu ditu Fidel Castro ta bere gobernabidea. Birritan irakurri bear, arek esandakoa siñistuteko.

Bere senean egon ete da jaun ori, orrelakorik esateko? Vatikanook laster kenduko deutso nonbait Nuntzio kargua, orretariko delaraziñoak egin ditualako. Ez ba!

● Gauzak asko aldatu dira Cuban, diño Cesare Zacchi jaunak, Inglaterrako «Interpress Service» ajentziari eskiñitako izketaldian.

● Alde bietatik, asko gitxitu dira alkarren kontrako susmoak, bai kleroaren eta bai gobernuaren mandatik.

● Giroa guztiz obatu da, naizta oraindiñokarren eleizgizon batzuen artean Fidel Castroren jokabideari buruz mesfidantzea naikoa egon.

● Gobernua len baiño zabalago agertzen da abadeakaz eta Castroren oraiñarteko arerio politikuakaz. Justizia sozial jatorrago ta garbiago bat egin gura da, gaurrarte ikusi ez doguna.

● Cubako Eleiza Katolikua konturatu egin da, lengotara biurtzerik ez dagoala eta sozialismua, beinbeifiekkoa barik, luza-

rorako errealdade bat dala. Orregaitik, Eleizeak alkar konpontze on bat billatu gura dau gobernuagaz eta leku egoki bat euki Erriaren sozialismugintzan.

● Beiniola, erreboluziño aurrean, abadeak eta obispoak erdiko maillako jentegaz euki oi zituen artuemonak, eta influentzia aundia euken mailla orretako politikuen artean.

● Baiña au, betiko joan da. Gaur Cuban, ez dago kasik erdiko maillako jentetik, euretariko geienak erbestera iges egin dabe-ta. Orain, langilleak dira batez bere. Erria egiten dabenak. Eurokana jo dau orain Eleizeak, eta era batera aldatu egin ditu bere oraiñarteko politikazko pentsabideak.

● Ez dira gitxi elizgizonak, euren gaurrarteko ikusieziña, lagata, Castroren alde jarri direanak.

● Gobernua bera be, konturatu egin da Eleizearen aldaketa onegaz. Eta ori dala-ta, Nuntziaturearen bitartez, alkarrizketan asi gura dau Vatikanogaz. Fidel Castrok berak emon dau lenengo pausua, oraintsurengo Habanako Nuntziaturara etorri danean.

● Onelan, konfiantzazko bizimodu berrit bat ernetan asi da Cubako ugarte osoan, komunisten eta katolikuen artean.

● **Oneexek izan dira, Cesare Zacchi, Cubako Nuntzioaren deklaraziñoak.**

ZER JAZO DA CUBAN?

5 gn. orriald.

URREAREN GORABERAK

7 gn. orriald.

EUSKALERRIA ESPAINIKO

ARRAINTZAN

10 gn. orriald.